

**GIZARTE ZERBITZUEN ERAKUNDE ARTEKO ORGANOAREN OHIKO BILKURAREN AKTA**

EGUNA: 2016ko urriaren 6a

TOKIA: EUSKO JAURLARITZAREN LAKUAKO EGOITZA (Lakua II, 6.
aretoa)

HASIERA-ORDUA: 16:45.

AMAIERA-ORDUA: 19:36.

BERTARATUAK:**PRESIDENTEA:**

Angel Toña Guenaga jauna, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua.

KIDEAK:

- Eusko Jaurlaritzaren ordezkari:
 - Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Gizarte Politiketako sailburuordea.
 - Emilio Sola Ballojera jauna, Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
 - José Javier Miguel De la Huerta jauna, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako zuzendaria.
 - Hernando Lacalle Edeso jauna, Aurrekontuen zuzendaria (Ekonomia eta Aurrekontuen sailburuorde Pedro M^a Hernando Arranz jauna ordezkatzen du).
 - Estefanía Gordoa andrea, Lan Harremanen zuzendaria (Herri Administrazio eta Justiziako sailburuorde Andrés Zearreta Otazua jauna ordezkatzen du).
- Foru-aldundietako ordezkari:

- Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako foru-diputatua.
- Isabel Sanchez Robles andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru-diputatua.
- Maite Peña López andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako foru-diputatua.

Horrez gain, foru-aldundiak ordezkatzan dituzten kideen ordezkotzat hurrenez hurren jotzen diren pertsonak ere bertaratu dira bilerara, hain zuzen ere:

- Marian Olabarrieta Ibarrondo andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.
- Sergio Murillo Corzo jauna, Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusia, eta

Bizkaiko Foru Aldundiko Menpekotasunerako Arreta.

- EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko ordezkari:
- Josu Bergara López jauna. Sestaoko alkatea.
- María Natividad López de Munáin Alzola andrea. Burguko alkatea.
- Eneko Maioz jauna. Oresako alkatea.

Gonbidatu gisa, honako hauek bertaratu dira:

- Mar Zabala Mardaras andrea, EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteko zuzendari nagusia.

GAI-ZERRENDAA

1.-Aurreko bileraren akta (2016-06-23) irakurtzea eta onestea

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko Dekretuaren gaineko nahitaezko txostena egitea.

3. Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoaren sei hileko txostena egituratzea, 2016ko funtsari begira.

4. 2017ko funtsa banatzeari buruzko Dirubideen Euskal Kontseilurako testua proposatzea.

5. Lurralde-mapak txertatzea Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikora.

6. Eskaerak eta galderak

Aipatu pertsonak bertaratuta, hasiera eman zaio bilerari. Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoko presidente gisa, ongi etorria egin die bertaratutakoei.

Jarraian, gai-zerrendan jasotako kontuak jorratzeari ekin zaio.

1.-Aurreko bileraren akta (2016-06-23) irakurtzea eta onestea

Behin-behineko akta igorri zaie aldeei, eta, horren ondorioz, hainbat aldaketa egiteari ekin zaio.

Lehenengoa, EUDELeko zuzendari Mar Zabala andreak proposatutakoa, laugarren atalean egin da, hots, «Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan xedatutako funtsa banatzeari buruzko informazioa» izeneko atalean. Hala, modu honetan geratu da ukitutako paragrafoa:

«Mar Zabala andreak uste du, entregatutako txostenaren arabera 2016an sortutako funts honek ez duela baldintzarik, udalen eskumen propioak finantzatzeko Euskadiko Tokiko Erakundearen Legearen 111. artikuluari jarraikiz. Ezohiko funtsa izateari dagokionez, baliabide horiek finantzaketa-eredu orokorrean sar daitezke etorkizunean, udalen finantzaketa arruntaren parte izan daitezen. Justifikazioari dagokionez, Plan Estrategikoaren jarraipena egiteko eskema bateratu bat landu beharko litzatekeela iruditzen zaio, planean bertan ezarri den legez».

Bestetik, beste bi aldaketa txertatu dira, Arabako Foru Aldundiak hala proposatuta ¹barkamena eskatu ondoren foru-diputatuaren ezin izan zelako etorri², bosgarren atalean,

hots, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren integratutako zerbitzuen ikur bereizgarriari buruzko atalean:

«Jose Luis Alonso Quilchanok aipatu du egindako proposamena egokia iruditzen zaiola, eta Arabako Foru Aldundiko dagokien sailei igorri eta haiekin kontsultatu beharko dutela».

2. Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzko Dekretuaren gaineko nahitaezko txostena egitea

Ekainaren 23an egindako nahitaezko bileran, puntu hori mahai gainean uztea eta Osasun Sailarekin batera lan egitea proposatu zen, Dekretuan erabilitako terminologiari dagokionez batik bat; izan ere, osasun arloko hiztegia erabiltzen da, eta, arlo sozialeko zentroei zuzendutako dekretu bat denez, egokia iruditu zitzaigun terminologia hori Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean eta, zehazki, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan ezarritakora moldatzea.

Denbora-tarte horretan, testua landu egin da, eta erakundeek ekarpenak egin dizkiote Dekretuaren zirriborroari. Osasun Sailak jaso ditu «hala uste dugu» ekarpen horiek.

Isabel Sánchez Robles andreak Enplegu eta Gizarte Politiketako eta Osasun Sailen eskuragarritasuna eskertu ditu, bereziki Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Farmaziako zuzendari Iñaki Betolaza jaunarena, eta esker horiek aktan jasotzeko eskatu du.

Halaber, Maite Peña andrea txostena egitearen alde agertu da, eta pozik dagoela adierazi du, bere ustez talde-lanaren adierazpen ona erakutsi delako.

Beatriz Artolazabal andrea ere beste bi foru-diputatuek esandakoaren alde agertu da, eta arauaren proiektuaren aurreko zirriborroaren idazketa hobetu dela baieztatu du. Horrez gainera, gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitzen inguruko gaia sartu izana beste hobekuntza bat dela adierazi du.

Josu Bergara jaunak, Eudelen izenean, adierazi du ez dagoela testuaren kontrako eragozpenik, bai eta Eudelen jarrera aldekoa dela ere.

Presidenteak baieztatu du aho batez proposatu dela nahitaezko txostena egitea, Erakunde Arteko Organoko kideen adostasuna baitu.

3. Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoaren seihileko txostena egituratzea, 2016ko funtsari begira

Presidenteak hitza eman dio Mar Zabala andreari, Eudelek ildo horretatik proposatutako testua irakurri dezan. Testuak honako hau dio:

Dirubide Publikoen Euskal Kontseiluari Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren garapenaren berri emateko xedez, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak:

1. Orokorrean, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 44. artikuluan atxikitako zereginak egikaritze aldera, eta «Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna

nagusiak» izenburupeko EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019ren 5.3 atalean xedatutakoaren arabera, aipatu Plan Estrategikoaren urteko ebaluazioari dagozkion txostenak berrikusiko ditu. Txosten horien ardatza planean xedatutako ekintzen betearazpena eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuak eta prestazioak hedatzeari lotutako gizarte-zerbitzuen mapan sartutako emaitza-adierazleak izango dira.

2. Dirubide Publikoen Euskal Kontseiluak 2015eko urriaren 14an 2016ko ekitaldirako adostutako ezohiko funtsari dagokionez, udalen eskumen diren zerbitzuetarako 10.000.000 eurokoari, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 111. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Artikulu horrek udalen baldintzarik gabeko finantzaketa xedatzen du, oro har. Hori guztia, Plan Estrategikoaren ebaluazio-txostena, planaren 5.3 atalean jasotakoa, 2017ko lehenengo sei hilekoan egin dadin eragotzi gabe. Atal horren ardatza planean jasotako ekintzen betearazpen-maila da, bai eta 2017ko urtarrilaren 1ean mapan ezarritako helburuak bete daitezzen ere. Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak bideratu eta berrikusiko du txosten hori. Txosten hura erabiliko da funts hori sortzeko erabakiaren laugarren atala betearazte aldera, ondorio guztietarako (2015eko urriaren 14ko Dirubide Publikoen Euskal Kontseiluaren Erabakia).

Lide Amilibia andreak adierazi du Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila bat datorrela planteatutako testuarekin, bai eta organoko gainerako kideak ere.

Isabel Sánchez Robles andreak adierazi du bat datorrela bere ustez erakunde-mailen arteko zehar-lana izango denarekin, Erakunde Arteko Organoak egin beharreko jarraipenarekin [horretarako, tresnak hornitu dira]. Horrez gain, txosten hori Dirubide Publikoen Euskal Kontseiluari «motu propio» jakinaraziko diola adierazi du.

Hernando Lacalle jaunak adierazi du Dirubide Publikoen Euskal Kontseiluaren Erabakia honako hau adierazi duela arbi eta garbi: Erakunde Arteko Organoak jarraipen hori egiteko erantzukizuna duela, eta helburua ez zela fiskalizatzea, baizik eta jarraipena egitea, planak tresnak eman ditzan.

Beatriz Artolazabal andrea bat dator organoak planteatu eta balioztatu duen moduko memoria edo txostena egitearekin.

4.-2017ko funtsa banatzeari buruzko Dirubideen Euskal Kontseilurako testua proposatzea

Presidenteak adierazi du Dirubideen Euskal Kontseiluak Erabaki bat egin zuela 2015eko urrian. Erabaki horren bidez, onetsi egin zen erakunde arteko funtsa egitea, zeinak 2016ko abendurako aurreikusitako Legea orokortzeko helburua lortzen lagunduko baitu. Funtsa 10.000.000 eurokoa da 2016rako, eta 20.000.000 eurokoa izango da 2017. urtetik aurrera. Lehenengo kasuan, funtsa udalei soilik dago zuzenduta, eta 2017. urtetik aurrera, berriz, udalei eta aldundiei.

2017ko testua 2016ko testuaren antzekoa izango da, baina aipatu ezberdintasuna jasoko du, hots, funtsa udalei eta aldundiei zuzenduta egongo dela, eta azpimarratuko da Gizarte

Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak funtsaren kontura egingo diren jarduketari jarraipena egingo duela, bai eta Dirubide Publikoen Euskal Kontseiluari txosten bat igorriko diola ere.

Ogasun Sailak testuaren berri emango die Foru Ogasunei, Dirubide Publikoen Euskal Kontseiluaren hurrengo bilera egin aurretik.

Jarraian, Hernando Lacallek Erabakiaren zirriborroa irakurtzeari ekin dio:

ERABAKIA

- 1- 20.000.000 euroko ezohiko funtsa sortzea 2017ko ekitaldian, zeinaren helburua gizarte-zerbitzuen alorrean proiektuak egitea izango baita.
- 2- Eusko Jaurlaritzari eta foru-aldundiei dagokie funts horren finantza-arloko ekarpenak egitea, koefiziente bertikalaren eta horizontalen arabera, hurrenez hurren.

Gizarte-zerbitzuen garapenari lotutako funtsa

	%	euroak
Guztira		20.000.000
Eusko Jaurlaritza	% 70,04	14.008.000
Foru-aldundiak	% 29,96	5.992.000
Araba	% 16,38	981.490
Bizkaia	% 50,64	3.034.349
Gipuzkoa	% 32,98	1.976.161

Erakunde bakoitzak aipatu zenbatekoak jarriko ditu dagokien aurrekontuetan.

- 3- Euskal Autonomia Erkidegoko udal- edo foru-erakundeek eskainiko dituzten prestazio eta zerbitzu ez egonkortuen (berrien eta/edo urri garatutakoen) zorroa garatzeko beharrezkoak diren proiektuak finantzatzea izango da funtsaren xedea. Koefiziente horizontalen arabera banatuko da funtsa lurralde historikoen artean.
- 4- Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak finantzatutako proiektuen jarraipena egingo du, eta, sei hilabete behin, funtsak Dirubide Publikoen Euskal Kontseiluari finantzatutako eta garatutako jarduketari buruzko txosten xehea egingo du.

Azken kontu horri dagokionez, presidenteak adierazi du balitekeela txosten hori urtean behin egitea, eta organoa osatzen duten gainerako kideak ados daude kontu horrekin.

Isabel Sánchez Robles andreak adierazi du ez dagoela testu horrekin ados. Izan ere, bere ustez, laugarren atalean, «egin» aditza erabili beharrean, «helarazi» erabili beharko litzateke, Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoa eta Dirubide Publikoen Euskal Kontseilua maila berean daudela uste baitu. Era berean, andreak uste du argi utzi beharra dagoela ez dela organoa behartuko txosten hori egitera; ekimen propioz egingo du. Azpimarratu du argi utzi behar dela organoan gauzak adosten eta helarazten direla, eta helburua ez dela kontuak ematea.

Hiru foru-diputatuek baieztatu dute ez daudela irakurritako Erabakiaren hirugarren eta laugarren atalekin ados. Maite Peña andreak baieztatu du bere ustez ez dela zuzena prestazio eta zerbitzu ez egonkortuak soilik aipatzea hirugarren atalean, eta honako hau argudiatu du: 2016rako Erabakian, 2017. urterako aurreikusten dena aipatzen denez, prestazio eta zerbitzu horiek ez dira ez egonkortuak izatera mugatzen; iritzi horrek 2016rako funtsari soilik eragiten dio.

Sergio Murillo jaunak planteatu du «ez egonkortuak» erreferentzia ezabatu dadin eta Zorroari buruzko Dekretuak horren inguruan adierazitakoarekin ordezkatu dadin: «berriak edo urri garatutakoak».

Beatriz Artolazabal andreak adierazi du 2017an finantzaketa partekatua izango dela eta, horrexegatik, ez du uste finantzaketa horren ardatza zerbitzu berriak edo urri garatutakoak izan behar direla.

Eneko Maioz jaunak uste du 2017ko funtsaren 20.000.000 euro horiek foru-aldundien eta udalen artean nola banatuko diren jakitea dela garrantzitsua.

Lide Amilibia andreak argitu du kontu hori Erakunde Arteko Organoaren beste bilera batean landuko dela.

Esku-hartzeak kontuan hartuta, egindako adierazpenak jasotzen dituen eta Dirubideen Euskal Kontseiluari igor dakioken testu bat irakurtzeari ekin dio Hernando Lacalle jaunak, eta testu horrek hirugarren eta laugarren puntuak aldatu ditu. Hala, horrela geratu dira:

«3. Funtsa erabiliko da Zorroari buruzko Dekretuko prestazio eta gizarte-zerbitzu berriak edo urri garatutakoak Euskal Autonomia Erkidegoko foru- eta udal-erakundeek egiten dituztenak betetzeko beharrezkoak diren jarduketak finantzatzeko. Koefiziente horizontalen arabera banatuko da funtsa lurralde historikoen artean.

4. Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak, bere eskumenekin bat, aipatu jarduketak jarraipena egingo du, eta funtsa erabiltzeko txosten hori partekatuko du Dirubide Publikoen Euskal Kontseiluarekin».

Behin betiko testua LHEK-ko kideek zehaztuko dute, baina posible da proposamen hori haiei helaraztea.

Eneko Maioz jaunak errepikatu du funtsaren banaketa noiz landuko denari buruzko galdera.

Ángel Toña jaunak adierazi du organoaren hurrengo bileran landuko dela banaketa hori. Bilera horren data ez da oraindik zehaztu.

5. Lurralde-mapak txertatzea Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikora.

Presidenteak hitza eman dio foru-ordezkariei eta Eudeleko ordezkariak, Planari erantsi beharreko lurralde-mapa bakoitzaren inguruan hitz egin dezaten, 4.1.1.2.2. atalaren zortzigarren puntuak ezarri duen lege. Arreta-sarearen plangintza eta antolamendua lurralde historiko bakoitzean, eta erakundearen arteko lankidetzak; honako hau dio:

«8. Erakunde bakoitzaren plangintza eta/edo, hala badagokio, lurralde historikoko mapak eranskin gisa txertatuko dira *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikora*, egin bezain laster. Edonola ere, gerta daitekeenez planifikazio-erritmoak berdinak ez izatea, *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa eta Mapa* egintzat hartzeko ez da beharrezkoa izango horiek atxikita egotea».

Maite Peña andreak adierazi du Gipuzkoako Aldundiak lurralde historiko horretako mapa igorri duela; orobat esan du bigarren mailako arretako lurralde-antolamendua 2015ean onetsi zela Hala ere, lehen mailakoa oraindik onesteke dago, Eudelen batzorde eragile berria osatu arte itxaron behar izan baita.

Puntu horretatik aurrera, lurralde-antolamendu hori egin da, eta ontzat jo dira udal-ekarpenak. Horrez gain, bigarren mailako antolamendua berregin da.

Isabel Sánchez Robles andreak azpimarratu du Bizkaiko Erakunde Mahaia 2016ko ekainaren 25ean bildu zela. Foru Aldundia Eudelekin aritu da elkarlanean; elkartruke aberasgarria egin dute, eta zorroa hedatzen jarraitzea espero du, bai eta udal- eta foru-kontuak modu orekatuan garatzea ere.

Beatriz Artolazabal andreak adierazi du Arabako Mahaia 2016ko urtarrilean osatu zela, eta lau aldiz bildu zela. Arabako lurraldearen mapa 2016ko uztailaren 21ean onetsi zen. EH Bilduk egindako ekarpen gehienak hartu dira kontuan. Halaber, Foru Aldundia eskuragarri dago landa-eremuko udalerriekin ados jartzeko eta haiekin koordinatzeko.

Eneko Maiatz jaunak iruzkindu du Eudelek ez dituela mapak, eta mapak izatea eskertuko lukeela. Eskaera hori aktan jaso dadin ere nahi du.

Beatriz Artolazabal andreak baieztatu du Arabako Lurralde Historikoaren mapa Arabako udal guztiei igorri zitzaizela.

6. Galderak eta eskaerak

Lide Amilibia andrea Etxerik Gabeko Pertsonen Estrategiaren egoeraren berri eman du.

Euskadiko etxerik gabeko pertsonen arreta emateko strategiari buruzko Lan Batzordearen azken bilera 2016ko irailaren 13an egin zen.

- Estrategia egiteko lan-prozesuaren iraupenaren inguruan, eta Eusko Legebiltzarrak eskatutako estrategia dela aintzat hartuta, adierazi zen komenigarria zela estrategia hori azaroan amaitzea, sortuko den Gobernuak aintzat hartu dezan eta, egokitzat jotzen badu, Eusko Legebiltzarrean aurkeztu dezan legegintzaldiaren hasieran. Gainera, Bilboko Udalak planteatu du komenigarria dela Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak estrategia hori aintzat hartu dezan.
- Bestetik, strategiaren izaera gutxi gorabehera loteslea definitzeko beharra planteatu da, kontu hori ez baita diagnostikoan aipatu. Bertaratutako erakunde gehienak estrategia orientatzailea egitearen alde agertu dira, zeinak administrazio bakoitzak jarduketara espezifikoak egitean gero zehaztuko dituen hainbat printzipio, helburu eta gidalerro ezarriko baititu. Uste da bide hori malguagoa eta erabilgarriagoa izan daitekeela orientazio estrategiko bat ezartzeko, betiere erakunde guztien autonomia errespetatuz.
- Izaera orientatzailea izango duen esparru estrategiko bat osatzeko helburu hori izaki, hainbat ardatzen arabera antolatutako zenbait printzipio orokorrek, helburuk eta

gidalerrok osatuko lukete estrategia "diagnostikoaz gain". Sailak egindako beste estrategia batzuetan gertatu denez, besteak beste, Enplegu Estrategian, gidalerroak orokorrak eta hainbat eragileren ekintzak zentzu jakin batean orientatzeko gauza izango lirateke, baina eragile horien autonomia eta aldaketak egiteko aukera mantenduta betiere.

- Estrategiari atxikitzea borondatezkoa da, baina, nolanahi ere, loteslea izango litzateke, hau da, modu adostu batean ezarritako gidalerro orokorrak garatzeko jarduketa eta neurri zehatzak garatzeko betebeharra izango lukete atxikitako erakundeek. Bestetik, borondatezko atxikimendu horri dagokionez, planteatu egin da "betiere estrategia erakunde artekoa, benetan sail artekoa eta operatiboa izan dadin" estrategia adostu beharko litzatekeela, eta atxikimenduko gutxieneko maila (modu kualitatibo eta kuantitatiboan) izan beharko lukeela.
- Eusko Jaurlaritzak eredu bat proposatu du; eredu horren bidez "estrategiaren beraren izaera orientatzailearen eta garatu beharreko jarduketa zehatzen inguruan erakundeek egindako hautaketaren arabera", erakunde bakoitzak bere baliabide propioak erabiliko ditu garatu beharreko jarduketak finantzatzeko.
- Hirugarren sektoreak estrategia definitzeko prozesuan parte hartzeari dagokionez, planteatu egin da komenigarria dela estrategia-proposamena aurkeztea Elkarrizketa Zibilerako Mahaian, behin irizpideak, helburuak eta gidalerroak definituta, proposamen hori Legebiltzarrean aurkeztu aurretik betiere.
- Bileran parte hartu duten zenbait erakunderen ustez, komenigarria da strategiaren epemuga 2020. urtea izatea, eta ez 2018. urtea.

Bileran parte hartu duten pertsonen beren iritzia partekatu ostean, ontzat jarri dira sailburuordetzak egindako proposamenak, azpimarratutako ezaugarriak lotutakoak.

Halaber, era positiboan baloratu da diagnostikoan proposatutako berrorientazioa, hots, etxebizitzak ardatz dituen paradigmarantz berriz orientatzea. Horrek inplikatzeko du erakunde arteko ikuspuntu baten aldeko apustua egin beharko dela, bai eta onartu ere hainbat tresna erabili behar direla (etxebizitza, enplegua, diru-sarrerak bermatzea...), eta ez soilik gizarte-zerbitzuak, etxebizitzarik gabeko pertsonekin esku hartzeko.

Nolanahi ere, argi utzi da helburua ez dela erantzukizuna Etxebizitza Sailari eskualdatzea; eredu jakin bat proposatzea da helburua, zeinaren bitartez Gizarte Zerbitzuek (eguneko arretazentro eta egoitza-zentro tradizionalak kudeatzeaz gain) gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze ibiltaria "bai lehenengo mailakoa, bai bigarren mailakoa" indartu beharko bailukete. Hala, etxebizitza-sistemak zerbitzu jakin bat (etxebizitzak) eskaintzeko erantzukizuna izango luke, eta gizarte-zerbitzuen sistemak, berriz, beste bat (lagun-egite soziala eta etxebizitza horiek modu autonomoan mantentzeko beharrezkoa den gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzea).

Estrategia osatzen duten gidalerroen atal handi baten helburua mapan eta zorroan jada jasotako baliabideak garatzea izango da. Paradigma aldatzeak hainbat zentrotara sartzeko ezarritako baldintza batzuk (orain ezarritako baldintzak murriztuz) edo baliabideen hartzaileren profila berrikustea eragin beharko luke, betiere Zorroari buruzko Dekretuan ezarritako gutxienekoak epe laburrean aldatu gabe.

Lanerako plana

Azpimarratutako guztia abiapuntu hartuta, honako lan-plan honi jarraituko zaio estrategia egiteko:

- Urriaren erdialdera arte, diagnostikoa zuzenduko dugu, adierazitako ezaugarriak jarraikiz, eta gidalerro-proposamen bat idatziko dugu, bai eta jarraipen-sistema bat ere.
- Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak strategiari buruzko bigarren zirriborro bat igorriko die erakunde guztiei, eta, zirriborro horretan, zuzendutako diagnostikoa, helburuak, irizpideak eta ardatzak (horiek ere zuzenduta, aurretik adierazitakoari jarraikiz) eta alor guztietarako gidalerro-proposamen bat jasoko dira.
- Erakundeek hilabeteko epea izango dute (gutxi gorabehera) gidalerro horiek aztertzeko, eta, hala, azaroaren erdialdean, bilera bat egin liteke gidalerroak eta behin betiko testua kontrastatzeko eta onesteko.
- Zirriborro hori definitutakoan, Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren esparruan, zirriborroa igorriko zaie hirugarren sektoreko entitateei, balizko hobekuntzak edo ezaugarri osagarriak proposatu ditzaten.
- Behin hobekuntza eta ezaugarri horiek txertatuta, hala badagokio, estrategia egiteko prozesua amaitutzat emango da, eta Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoari eta/edo Eusko Legebiltzarrari bidali ahalko zaio, baldin eta Gobernu berriak lan-dinamika hori mantentzea erabakitzen badu, jakina.
- Hortik aurrera, eta beharrezkotzat jotzen den denboran zehar, entitateek ¹adostutako gidalerroak betetzeko xedez jarduketa horiek egiteko konpromisoa hartutako entitateek, hain zuzen ere ²jarduketa jakin batzuk egiteko denbora-tartea ezarriko da.

Hori dela-eta, idazkaritza tekniko bat izatea beharrezkoa izango da, eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak izango luke horren gaineko erantzukizuna. Idazkaritzaren helburua hau da: hainbat erakundek zenbait jarduketa egiteko konpromisoa hartu zuten, eta idazkaritzak jarduketa horiek eta, aurrerago, horiek betetzen direnaren inguruko informazioa zentralizatuko ditu, komenigarritzat jotzen diren prozesu- edo inpaktu-adierazleak erabiliz.

Beste galderarik edo eskaerarik ez dagoenez, eta bertaratu diren pertsonak eskerrak emanez, presidentek bilera amaitutzat eman du 19:36an.

Idazkaria

Presidentea

Sin. Emilio Sola Ballojera jauna

Sin. Angel Toña Guenaga jauna

